Irurtzunen, bi mila eta hogeita bateko martxoaren 23an, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ohiko bilkura egitearren, Aitor Larraza Carrera alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 23 de marzo de dos mil veintiuno se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión ordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los siguientes Concejales y Concejalas:*

| | |
|---|---|
| Agurtzane Garijo Peralta andrea. | *Dña. Agurtzane Garijo Peralta.* |
| Eduardo Murugarren Frances jauna. | *D. Eduardo Murugarren Francés.* |
| Joseba Royo García jauna. | *D. Joseba Royo García.* |
| Ana Santander Lizaso andrea. | *Dña. Ana Santander Lizaso.* |
| Antonio Ollakarizketa Elizondo jauna. | *D. Antonio Ollakarizketa Elizondo.* |
| Ana Balda San Juan andrea. | *Dña. Ana Balda San Juan.* |
| Enrique Tenorio Ruiz jauna. | *D. Enrique Tenorio Ruiz.* |
| Luis Enrique de la Calle Moreno jauna. | *D. Luis Enrique de la Calle Moreno.* |
| Domingo Goñi Sarasola jauna. | *D. Domingo Goñi Sarasola* |
| Naiara Gartzia Royo andreak ez du etortzerik izan. | *Excusa su asistencia Dña. Naiara Gartzia Royo.* |

25/03/2021 09:04:35
Alkatea
Aitor Larraza Carrera
Original firmado electrónicamente

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Dña. Eguzkiñe Aiesa Andres.*

**1.- 2021ko otsailaren 2an ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 2 de febrero de 2021.***

Aho batez onartu da 2021eko otsailaren 2an ospatutako ohiko osoko bilkuraren akta.

*Se aprueba por unanimidad el acta del pleno ordinario del día 2 de febrero de 2021.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2021/21-etik 2021/91 ebazpenera.**

Osoko bilkura honetan ebazpen askoren berri eman behar zenez, ebazpen bakoitzaren laburpena bidali zen bilkura egin aurretik.

Bileran, alkateak hitz egiteko txanda ireki du.

Enrique Tenorio jaunak galdetu du nondik datozen isunei buruzko ebazpenak; alkateak erantzun dio Foruzaingoak edo Guardia Zibilak hasitako zehapen-espedienteen izapidetzeak direla. Galdetu da, gainera, ea denbora luzez leku berean aparkatuta daraman karabana batek zehapenik jaso dezakeen, eta denboraren arabera eta inguruabarrak kontuan hartuta zigortu egin daitekeela erantzun zaio, beti ere, karabanak eta atoiak baliokideak ez direla azpimarratuz

Udalbatza 2021/21 ebazpenetik 91/2021 bitarteko ebazpenez jakitun geratu da.

Osoko bilkura baino lehenago jakinarazteko alkatetzaren ebazpenen laburpenak bidaltzen jarraitzea adostu da.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 21/2021 hasta la 91/2021.***

*Dado que eran muchas las resoluciones de las que dar cuenta en este Pleno, se envió el resumen de cada una de ellas previamente a la sesión.*

*En la sesión, el Alcalde ha abierto turno de palabra.*

*Don Enrique Tenorio pregunta de dónde parten las resoluciones relativas a las multas; el Alcalde le contesta que son tramitaciones de expedientes sancionadores iniciados por Policía Foral o Guardia Civil. Se pregunta, además, si una caravana que lleve largo periodo de tiempo estacionada en un mismo lugar puede ser sancionada, a lo que se le responde que dependiendo del tiempo que lleve y de las circunstancias que se den, puede serlo, recalcando que no son equivalentes caravanas y remolques.*

*El Pleno se da por enterado de las resoluciones 21/2021 a 91/2021.*

*Se acuerda continuar enviando documentalmente los resúmenes de las resoluciones de alcaldía de las que dar cuenta con anterioridad a la sesión plenaria.*

**3.- Musika Eskolara joateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean akatsa zuzentzen duen martxoaren 1eko Alkatetzaren 74/2021 Ebazpenaren berrespena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du onartutako Musika Eskolara joateagatiko Tasak Arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren akatsa honetan datzala: hirugarren atalean Atakondoa Ikastetxe Publikoaren musika - tailerrera

***3- Ratificación de la Resolución de Alcaldía 74/2021, de 1 de marzo, por la que se corrige error en la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por asistencia a la Escuela de Música, si procede.***

*El Alcalde explica que el error de la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por Asistencia a la Escuela de Música aprobada radica en que en el apartado tercero de esta establecía en 100 euros la tasa de asistencia al*

bertaratzeagatiko tasa 100 eurotan ezartzen zen, eta azken urteetan 150 euro ordaintzen dira.

*taller musical del Colegio Público Atakondoa, cuando realmente son 150 euros los que se vienen abonando los últimos años.*

Hitzen txanda irekita, ez dago halakorik izan; gaia bozkatu da, eta **osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Abierto el turno de palabras, no las hay; se somete el asunto a votación, ante lo que* ***el Pleno, por unanimidad, acuerda****:*

LEHENENGOA.- Musika Eskolara joateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean akatsa zuzentzen duen martxoaren 1eko Alkatetzaren 74/2021 Ebazpena berrestea.

*PRIMERO.- Ratificar la resolución de alcaldía 74/2021, de 1 de marzo, por la que se corrige error en la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por asistencia a la Escuela de Música.*

BIGARRENA.- Honako akordioa argitaratzea.

*SEGUNDO.- Dar publicidad al presente acuerdo.*

**4.- 0 eta 3 urte bitarteko haurrak haur – eskoletara joateagatik familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak: Deialdiaren ebazpena eta ordaintzeko baimena, hala badagokio.**

***4.- Ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral por la asistencia de niños/as de 0 a 3 años a escuelas infantiles: Resolución de convocatoria y autorización de pago, si procede.***

Alkateak azaldu du aurreko osoko bilkuran irekitako 0-3 urte bitarteko haurrak haur-eskoletara joateagatik familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen bigarren irekiera ordaintzeko deialdiaren eta baimenaren ebazpena egin beharra dela. Eskaera bakarra egon da, Cristian Vicente Ruiz Maldonado jaunaren familiarena, eta ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen ditu.

*El Alcalde explica que procede hacer la resolución de la convocatoria y autorización de pago de la segunda apertura de las ayudas a la conciliación de la vida familiar y laboral por la asistencia de niños y niñas de 0 a 3 años a escuelas infantiles abierta en el anterior Pleno. Ha habido una única solicitud, la de la familia de Don Cristian Vicente Ruiz Maldonado y cumple con los requisitos exigidos en la ordenanza.*

Afera bozkatuta, **Udalbatzak, aho batez, honako akordioa onartu du:**

*Sometida la propuesta a votación, el Pleno,* ***por unanimidad, adopta el siguiente Acuerdo:***

LEHENENGOA.- Aliszon Viviana Ruiz Maldonadoren familiari 2020. urteko kontziliaziorako diru - laguntza onartzea eta ordaintzea, espedientean jasotako proposamenarekin eta aplikatzekoa den

*PRIMERO.- Aprobar y abonar, de acuerdo con la propuesta obrante en el expediente y la ordenanza reguladora aplicable, la subvención a la conciliación correspondientes al año 2020, en concepto de asistencia a Escuelas Infantiles, a la familia de Aliszon Viviana Ruiz*

ordenantzarekin bat etorriz.

*Maldonado.*

BIGARRENA.- Diru-laguntza ikastaroa amaitzean ordainduko da, bertaratzea eta lanaldi mota justifikatu ondoren.

*SEGUNDO.- La subvención se abonará al finalizar el curso, previa justificación de asistencia y tipo de jornada.*

HIRUGARRENA.- Erabaki hau familia interesdunari jakinaraztea, horren berri izan dezan eta ondorioak izan ditzan.

*TERCERO.- Notificar este acuerdo a la familia interesada para su conocimiento y efectos.*

**5.- Saien Balkoiaren birhomologatzea, hala badagokio.**

***5.- Rehomologación del Balcón de los Buitres, si procede.***

Alkateak azaldu du Mendi Federazioarekin lanean ari direla Irurtzungo zenbait bidezidor homologatzeko, kalitatezkoak eta segurtasunekoak izan daitezen. Homologazioek lau urte irauten dute, eta, ondoren, berriz homologatu behar dira.

*El Alcalde explica que se está trabajando con la Federación de Montaña para homologar varios senderos de Irurtzun, para que sean de calidad y seguridad. Las homologaciones duran cuatro años, tras los cuales procede su rehomologación.*

Kasu honetan, Saien Balkoiaren homologazioak indarra galdu du, eta, bere birhomologaziorako, osoko bilkuraren onespena eskatzen da. Ez da aldaketarik proposatzen, federazioak eskatzen dituen baldintzak betetzeko behar - beharrezkoak direnez gain.

*En este caso, la homologación del Balcón de los Buitres ha perdido vigencia, por lo que se pide la aprobación del Pleno para su rehomologación. No se propone ninguna modificación, más allá de las estrictamente necesarias para el cumplimiento de las condiciones que exige la Federación.*

Gaia eztabaidagai eta bozkagai jarrita, **Udalbatzak, aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Sometido el asunto a debate y votación, **el Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- Saien Balkoiaren birhomologaziorako espedientea onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el expediente de rehomologación del Balcón de los Buitres.*

BIGARRENA.- Erabaki hau Sakanako Garapen Agentziaren Turismo Zerbitzuari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo a la Sección de Turismo de la Agencia de Desarrollo de Sakana.*

**6.- Pikuberri Elkartearekin egindako kudeaketa –hitzarmenaren behin behineko onespena, hala**

***6.- Aprobación definitiva, si procede, del convenio de gestión realizado con la asociación Pikuberri***

**badagokio.**

Alkateak San Martin kalearen eta 2. poligonoko 290 partzelaren artean erabilera publikoko pasabidea gaitzeko Pikuberri Elkartearekin sinatutako kudeaketa - hitzarmena behin betiko onartzeko jarraitu beharreko prozedura gogorarazi du. Partzela hori elkartearen jabetzakoa da, eta erabilera publikorako bokazioa du.

Alegazioen epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, osoko bilkurak behin betiko onespena egitea, behin betiko hitzarmena sinatzea eta obra hastea bidezkoa da.

Proposamena bozkagai jarrita, **Udalbatzarrera bertaratutako zinegotziek aho batez, honako erabaki hau onartu dute:**

LEHENENGOA.- 2-289 partzelan eskalirrampa gisa eta eraikinari itsatsita San Martin kaletik Pikuberri Elkartearena den 2-290 partzelaren eraiki gabeko zati libreraino doan oinezkoentzako sarbide libre eta publikoa egiteko Pikuberri Elkartearekin adostutako kudeaketa – hitzarmenari behin betiko onespena ematea, 2-290 partzelaren erabilerak bokazio publikoa baitu.

BIGARRENA.- Honako akordioa NAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Honako akordioa elkarte sustatzaileari jakinaraztea, administrazio bideari amaiera ematen diola eta ezar daitezkeen helegiteak jakinaraziz.

***Elkartea.***

*El Alcalde recuerda el procedimiento a seguir para la aprobación definitiva del convenio de gestión con la asociación Pikuberri Elkartea para la habilitación de un paso de uso público entre la calle San Martín y la parcela 290 del polígono 2, propiedad de la asociación, que tiene vocación de uso público.*

*Transcurrido el período de alegaciones sin que haya habido ninguna, procede la aprobación definitiva por el Pleno, la firma del convenio definitivo y el inicio de la obra.*

*Sometida la propuesta a votación, **el Pleno, por unanimidad de los y las concejales presentes, adopta el siguiente Acuerdo:***

*PRIMERO.- Aprobar definitivamente el convenio de gestión realizado con Pikuberri Elkartea, consistente en la habilitación de un paso de uso público, a modo de escalirrampa, en la parcela 2-289 y pegante al edificio, que posibilite el acceso libre y peatonal desde la calle San Martín hasta la parte libre de construcción de la parcela 2-290, propiedad esta de la asociación Pikuberri Elkartea, y el uso público que de esta se pretende.*

*SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.*

*TERCERO.- Notificar este acuerdo a la sociedad promotora, indicando que el mismo pone fin a la vía administrativa, con indicación del régimen de recusos que legalmente correspondan.*

**7.- Haur Hezkuntzako 2. Zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza – DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdiaren obren onespena eta oinarriak betetzeari buruzko onespena, hala badagokio.**

Alkateak gaiari sarrera egin dio, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren urteroko deialdia ireki dela azalduz, zeinaren bidez Haur Hezkuntzako 2. Zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza eta DBHko ikastetxe publikoetan hobekuntzak egiteko laguntzak arautzen baitiren. Irurtzungo Udalak Atakondoa Ikastetxe Publikoaren berokuntza sektorizatzeko proiekturako laguntza eskatzea proposatzen da, ekitaldi honetako aurrekontuetan jasota dagoena.

Laguntzen deialdiak Udalbatzaren osoko bilkurak proiektua eta deialdiaren oinarrian onartzea eskatzen du.

Jarraian, proiektua laburtu du; gelak termostatoekin indibidualizatzean datza, gaur egun eskolako berogailua zentrala izanik, martxan jartzean eskola osoaren sistemak funtzionatzen baitu, eskola berotzea zailagoa eta garestiagoa izanik, eta espazio batzuetatik besteetara alde termiko handiak egonez.

Hitzartzerik izan ez denez, zuzenean bozketara jo da. **Udalbatzak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:**

LEHENENGOA.- Atakondoa Ikastetxe Publikoko sektorizazio proiektua onestea, BEZ kanpo utzita

***7.- Aprobación, si procede, de las obras y de cumplimiento de las bases de la convocatoria de subvenciones a los Ayuntamientos y Concejos de la Comunidad Foral de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación de centros públicos de 2º Ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria – ESO.***

*El Alcalde introduce el asunto explicando que se ha abierto la convocatoria anual del Departamento de Educación de Gobierno de Navarra, para la ejecución de mejoras en los centros públicos de 2º ciclo de Educación Infantil, Primaria y mixtos de Primaria – ESO. Se propone que el Ayuntamiento de Irurtzun solicite la ayuda para el proyecto de sectorización de la calefacción del Colegio Público Atakondoa, recogido también en los presupuestos para este ejercicio.*

*La convocatoria de ayudas exige que el Pleno de la Corporación apruebe tanto el proyecto como las bases de la convocatoria.*

*Pasa a continuación a resumir el proyecto, que se basa en individualizar las aulas con termostatos, ya que a día de hoy la calefacción de la escuela es central, por lo que con su puesta en marcha funciona el sistema de la escuela entera, siendo más costoso calentar la escuela y habiendo grandes diferencias térmicas de unos espacios a otros.*

*No habiendo palabras, se procede directamente a la votación.* ***El Pleno del Ayuntamiento de Irurtzun, por unanimidad, adopta los siguientes acuerdos:***

*PRIMERO.- Aprobar el proyecto de sectorización de la calefacción del Colegio Público Atakondoa, cuyo gasto*

46.786,08 eurokoa dena eta BEZ barne hartuta 56.611,15 eurokoa.

*asciende a 46.786,08€ IVA excluido y 56.611,15€ IVA incluido.*

BIGARRENA.- Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuari aipatutako lanak egiteko diru – laguntza eskatzea eta konpromisoa hartzea Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikastetxe publikoen eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoen hobekuntza- eta birmoldaketa - obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako Foru Komunitateko udalei eta kontzejuei diru - laguntzak emateko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzeko.

*SEGUNDO.- Solicitar al Servicio de Infraestructuras Educativas del Departamento de Educación subvención para las mencionadas obras y comprometerse al cumplimiento de los requisitos exigidos por las bases de la convocatoria de subvenciones a los Ayuntamientos y Concejos de la Comunidad Foral de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación, de centros públicos de 2º Ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria – ESO.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea.

*TERCERO.- Notificar este acuerdo al Departamento de Educación del Gobierno de Navarra.*

**<u>8.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.</u>**

***<u>8.- Cesión de nicho a perpetuidad, si procede.</u>***

Alkateak esan du M. Nieves Agustino Beloqui andreak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Doña M. Nieves Agustino Beloqui.*

**Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

***El Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- C eremuko E kaleko 102. nitxoa M. Nieves Agustino Beloqui andreari betiko uztea.

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho nº 102 de la calle E de la zona C a Doña M. Nieves Agustino Beloqui.*

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749 eurokoa dela eta ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749 euros y el plazo para pagarla es de un mes, a contar desde el día*

hasita.

*siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**9.- EH Bilduko udal taldeak aurkeztutako mozioa, Leoz / Leotz udalerrian Accionak instalatu beharreko parke eolikoen eta parke fotovoltaikoen proiektuaren aurkakoa.**

***9.- Moción propuesta por el grupo municipal EH Bildu, en contra de los proyectos de parques eólicos y parques fotovoltaicos a instalar en el municipio de Leoz / Leotz, por Acciona.***

Alkateak bere Udal Taldeak, Leotz / Leozeko Udalak proposatuta, aurkeztutako mozioaren laburpen txiki bat egin du, Foru Komunitatean Accionak jarri nahi dituen instalazioei buruzkoa. Bere Udal Taldea Leotzeko Udalak bidaltzen duen mezuarekin ados dagoela baieztatu du; hark, plan energetiko bat jasoko duen plan estrategikoa beharrezkoa dela esaten du, energiak ez duelako espekulatzeko ondasun izan behar, eta lurraldean eragin kaltegarririk izan behar ez duela. Aitzitik, jarraitu beharreko bidea autokontsumoa izan beharko litzatekeela eta horren inguruan beste ekonomia mota bat sortu ahal izatea, beraz, bere taldearen aldeko botoa iragarri du.

*El Alcalde hace un breve resumen de la moción presentada por su Grupo Municipal, a propuesta del Ayuntamiento de Leotz / Leoz, en base a las instalaciones que pretende instalar Acciona dentro de la Comunidad Foral. Afirma que su Grupo Municipal está de acuerdo con el mensaje que envía el Ayuntamiento de Leotz, en el que dice que es necesario un plan estratégico que recoja un plan energético, porque la energía no tiene que ser un bien para especular ni tener afecciones perjudiciales al territorio, sino que el camino a seguir debiera ser el autoconsumo y poder generar otro tipo de economía entorno a ello, por lo que anuncia el voto a favor de su grupo.*

Enrique de la Calle jaunak hartu du hitza, Navarra Sumaren Udal Taldearen ordezkari gisa. Energia berriztagarriei dagokienez, Nafarroa Europako erreferente dela esan du. Nafarroa 2030 Ikusmuga Plan Energetikoaren barruan, klima – aldaketari eta energía – trantsizioari buruzko lege – aurreproiektua lantzen ari da. Bere udal taldea testuaren funtsarekin ados dagoela adierazi du, mota horretako instalazioak kontrolatuko dituen eta espekulazioak saihestuko dituen lege baten beharra dagoela, baina Accionari dagokionez ez ezik, zerbait orokorra dela uste dute eta, hortaz, bere udal taldearen abstentzioa iragarri du.

*Don Enrique de la Calle toma la palabra en representación del Grupo Municipal de Navarra Suma. Dice que Navarra es un referente europeo en cuanto a energías renovables se refiere. Dentro del Plan Energético Navarra Horizonte 2030 se está trabajando en un anteproyecto de ley sobre cambio climático y transición energética. Comparten el fondo del texto, consideran que es necesaria una ley que controle este tipo de instalaciones y evite especulaciones, pero entienden que no sólo con respecto a Acciona, sino en general. Anuncia la abstención de su Grupo Municipal.*

*Se somete el asunto a votación y* ***la Corporación***

Gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, bertaratutako EH Bilduko zazpi zinegotzien aldeko bozkekin eta Navarra Sumako hiru zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:**

***Municipal, con los votos a favor de los siete concejales y concejalas de EH Bildu presentes en la sesión y la abstención de los tres concejales de Navarra Suma, aprueba el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Leotz / Leozeko Udalak "Accionak Leoz / Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eolikoen eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako" proposatutako mozioa onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar la moción propuesta por el Ayuntamiento de Leotz / Leoz, "en contra de los proyectos de parques eólicos y parques fotovoltaicos a instalar en el municipio de Leoz / Leotz, por Acciona".*

BIGARRENA.- Erabaki hau Leotz/Leozeko Udalari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Leotz / Leoz.*

**10.- Erregu eta galderak.**

***10.- Ruegos y preguntas.***

Alkateak jakinarazi du duela bi aste bilera egin zuela Irurtzungo kuarteleko Guardia Zibileko sarjentuarekin, eta azken horrek esan ziola bi astez eginbideak egin zituztela udalerrian gertatutako ustezko jazarpenaren inguruan. Hiru abisu jaso zituzten zaintzari eutsi zioten asteetan. Abisu horien artean, hiruretako batek ere ez zuen funtsik, eta, beraz, espedientea ixteari ekingo ziotela jakinarazi zion.

*El Alcalde informa de que hace dos semanas mantuvo reunión con el Sargento de la Guardia Civil del Cuartel de Irurtzun, en la que este le dijo que llevaron a cabo diligencias durante dos semanas en relación con el presunto supuesto de acoso producido en el municipio. Recibieron tres avisos durante las semanas en las que mantuvieron la vigilancia, entre los cuales ninguno de los tres resultó ser fundado, por lo que procederían a cerrar el expediente.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:45ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:45 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

Alkatea / *El Alcalde,*
Aitor Larraza Carrera

ZIURTATZEN DUT
Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres

24/03/2021

X Eguzkiñe.

Eguzkiñe Aiesa Andres
Idazkaria
Firmado por: 44635243V EGUZKIÑE AIESA (R: P3190400F)